



## JARDUNALDIAK

**Herri Indigenak – Herri Komunikabideak – Komunikazioa Eraldaketa Sozialerako**  
DEBAGOIENA – URIBE KOSTA – AIARALDEA  
2016ko maiatza

Mugarik Gabetik, Euskal Herriko hiru eskualdeetako tokian tokiko 3 komunikabideen (Hiruka, Aiaraldea eta Goiena) eta Elkarhezitzen taldearen laguntzarekin “**KOMUNIKATUZ ERALDATU - herriak euren komunikazioaren jabe**” Jardunaldiak elkarlanean antolatu ditugu. Horien bitartez erakutsi nahi dugu, “Mass-Media” delakoek sustatutako pentsamendu bakarraren aurrean, herri-komunikabideen bitarteko Komunikazioa ezinbesteko tresna dela eraldaketa soziala, tokian tokiko kultura eta hizkuntzak eta beste jendarte eredu bat bultzatzeko. Horretan lanean ari dira hain zuzen ere bai hemengo eta bai Latinoamerikako komunikabide alternatibo eta indigenak ere.

Horretarako, Aretxabaletan, Arrasate, Oñati, Sopela, Getxo eta Urduñan gai hau jorratzeko, hitzaldiak, solasaldiak eta dokumental emanaldiak antolatu ditugu Euskal Herria, Bolivia, Argentina eta Mexikoko komunikatzaile eta kazetarien parte-hartzearekin.

## EKITALDIAK

Honako hau litzateke ekintzen egitaraua, beti ere **arratsaldeko 19:00tan**

### DEBAGOIENA

Maiatzak 17 asteartea - ARETXABALETA – Arkupe:

**Dokumental emanaldia:** “Eutsi edo Hil, herri indigenen salaketa, ikuspuntu eta proposamenak” (Euskaraz) + **Hitzaldi gonbidatu komunikatzaile indigenekin**

Maiatzak 18 asteazkena - ARRASATE – KulturAte:

**Mahai-ingurua:** Komunikazio alternatiboa eta herri komunikabideak eraldaketa sozialerako (Euskaraz eta Gaztelaniaz). Bertako eta Latinoamerikako komunikatzaileen parte-hartzearekin.

Maiatzak 24 asteartea – ARRASATE – KulturAte:

**Herri Indigenek egindako dokumentalak:** “MALLA MALLA PEWENCHE, MEMORIA Y RESISTENCIA MAPUCHE” (39min) eta “SOY COLLA” (15min) + **Komunikatzaile indigenekin hitzaldia** (Gaztelaniaz)

Maiatzak 26 osteguna – OÑATI – Zinema Aretoa:

**Herri Indigenek egindako dokumentalak:** “MALLA MALLA PEWENCHE, MEMORIA Y RESISTENCIA MAPUCHE” (39min) eta “SOY COLLA” (15min) + **Komunikatzaile indigenekin hitzaldia** (Gaztelaniaz)

## URIBE KOSTA

Maiatzak 5 – Kurtzio kultur etxea (SOPELA):

**Dokumental emanaldia:** “Eutsi edo Hil, herri indigenen salaketa, ikuspuntu eta proposamenak” (Euskaraz)

Maiatzak 12 – Azebarri kulturgunea (ALGORTA):

**Berbaldia – Mahai-ingurua:** Komunikazio alternatiboa eta eraldaketa sozialerako herri-komunikabideak (Euskaraz eta Gaztelaniaz). Bertako eta Latinoamerikako komunikatzaileen parte-hartzearekin

Maiatzak 19 – Villamonte kultur etxea (ALGORTA):

**Dokumental emanaldia:** “Eutsi edo Hil, herri indigenen salaketa, ikuspuntu eta proposamenak” (Euskaraz) + **Berbaldia gonbidatu komunikatzaile indigenekin** (Gaztelaniaz)

Maiatzak 26 – Villamonte kultur etxea (ALGORTA):

**Herri indigenek egindako dokumentalen emanaldia:** “MALLA MALLA PEWENCHE, MEMORIA Y RESISTENCIA MAPUCHE” (39 min) eta “SOY COLLA” (15 min) + **Berbaldia gonbidatu komunikatzaile indigena batekin** (Gaztelaniaz)

## AIARALDEA – URDUÑA – ALONDEGIAN

Maiatzak 18 asteazkena:

**Dokumental emanaldia:** “Eutsi edo Hil, herri indigenen salaketa, ikuspuntu eta proposamenak” (Euskaraz) + **Hitzaldia Nuria Telleria eta Mariano Estrada (CLACPI – Mexiko)**

Maiatzak 20 ostirala:

**Mahai-ingurua:** Komunikazio alternatiboa eta herri komunikabideak eraldaketa sozialerako / Parte-hartzaileak: Iván Sanjines (CEFREC – Bolivia), Bashe Nuhem (CLACPI – Argentina) eta Estitxu Eizagirre (Argia astekariko zuzendaria) - (Euskaraz eta Gaztelaniaz).

Maiatzak 23 astelehena:

**Herri Indigenek egindako dokumentalak:** “MALLA MALLA PEWENCHE, MEMORIA Y RESISTENCIA MAPUCHE” (39min) eta “SOY COLLA” (15min) + **Hitzaldia Mariano Estrada-ren eskutik** (Gaztelaniaz)

## EMANGO DIREN FILMAK

**EUTSI EDO HIL, HERRI INDIGENEN SALAKETA, IKUSPUNTU ETA PROPOSAMENAK (2015 – 40min)**

2014 urtean zehar Euskal Herrian bisitan izan genituen Latinamerikako Herri Indigena desberdinen ordezkarietako egindako elkarrizketak eta grabatutako irudiak jasotzen ditu. Bertan herri hauek egiten diren borroka, aldarrikapen eta proposamenak jasotzen dira.; bai Hezkuntzari dagokionez, Lurra eta Lurraldearekin dugun harremanari dagokionez, Nortasunari dagokionez, enpresa multinazionalen eraginari dagokionez eta baita “Bizitze Onaren” paradigmatari dagokionez ere.



**MALLA MALLA PEWENCHE, MEMORIA Y RESISTENCIA MAPUCHE (2015 - 37min)- Mapuche Pewenche herria**

Mapucheen erresistentziaren inguruko dokumentala, herri honen ordezkarien bitartez Queuco ibaiaren ertzeetan Malla Malla Pewenche komunitateak bizi duen gatazka ezagutu dezakegu. Txileko estatuak euren baliabide naturalak enpresa multinazionaleri saltzen dizkie eta horri aurre egiteko mobilizatzen direnean Malla Malla komunitateak jazarpena jasaten du.

**SOY COLLA (2014 – 15min) – Colla herria**

Lehen pertsonan egindako pertsona baten kontakizuna, desagertze dagoen herri baten ahotsa, bere jakinduria, egia, transmititzen dizkiguna. Baina datozten belaualdietarako alerta ahotsa ere bada, izan ere euren lurraldea kutsatua dago, eta errekurtsio naturalak agorturik. Beraz mendikatearen barrenera egiten den bidaia da, baina baita giza izaeraren barrenera.

## BERTAKO ETA LATINOAMERIKAKO HIZLARIAK



**Bashe Nuhem** – Qom herria – Argentina: Komunikatzailea eta errealizadorea, “Asociación Comunitaria Indígena de Comunicación”-eko kidea. Chaco-ko Komunitate indigenen antolaketa, autogestioa, garapena eta partaidetza sustatzea dute helburu komunikazioaren bitartez. CLACPI erakundeko formakuntza arduraduna ere bada Hego Amerikan

**Iván Sanjines** – Bolivia: “Fundación para el Desarrollo de la Comunicación Intercultural - CEFREC”-eko zuzendaria eta fundatzailea. Zinegilea ere bada orain dela 25 urtetik hona herri indigenek euren telebista eta zinema propioak izan ditzaten eta komunikabideen demokratizazioaren alde dihardu lanean.



**Mariano Estrada** – Tzeltal herria – Mexiko: Komunikatzailea eta zinemagilea, “Coordinadora Latinoamericana de Cine y Comunicación de los Pueblos Indígenas – CLACPI”-eko Koordinatzaile orokorra da.

**Ane Irazabal:** “Freelance” Kazetaria, arabiera hitz egiten den Ekialde Urbileko herrialdeetan egiten du lan batez ere eta besteak beste EITB-rentzat berriemaile lanetan aritzeagatik da ezaguna.



**Arantza Santesteban:** historialaria, komunikazio eta genero kontuetan aditua eta “Komunikazio parekiderantz kazetarietzako eskuliburu” liburuaren egilea.

**Carlos Aznarez:** kazetari argentinarra, “Resumen Latinoamericano” Komunikabideko zuzendaria





**Fakun Aznarez:** Euskal Herrian finkatutako kazetari argentinarra eta "Resumen Latinoamericano" hedabideko kidea ere

**Estitxu Eizagirre:** Argia astekariko kazetaria eta zuzendaria



Informazio + :

[www.mugarikgabe.org/komunikatuzeraldatu](http://www.mugarikgabe.org/komunikatuzeraldatu)

[www.goiena.eus](http://www.goiena.eus)

[www.aiaraldea.eus](http://www.aiaraldea.eus)

[www.hiruka.eus](http://www.hiruka.eus)

Kainpainaren aurkezpen bideoa: <https://vimeo.com/164018903>

#komunikatuzeraldatu

Harremanetarako: Xabier Martinez (Mugarik Gabe) – [xabi@mugarikgabe.org](mailto:xabi@mugarikgabe.org) – 943 445 977

## ANTOLATZAILE ETA LAGUNTZAILEAK



## BABESLEA

